

3. Gaia: **EZTABAIDA TALDEAK**

ZER DA EZTABAIDA TALDEA?

Elkarrizketarekin antzekotasunak ditu helburu orokorra berbera delako, prozedura berdina delako eta gidioen egitura berdina delako. Eztabaida taldearen 3 definizio daude:

- 1- Pertsona bat baino gehiago eta diskurtso berdinak: (...) galderak gizaki bakarrari egin beharrean talde bati egiten dizkiogu. Alegia, gai baten inguruan dauden ikuspuntuak eta iritziak ezagutzeko talde eztabaida bat sortzen dugu.” (Juaristi, 2003: 169)
- 2- Partaidetza talde sozialean: “El grupo de discusión es un colectivo de personas que participan por poseer los mismos intereses, los mismos valores, la misma situación social o una misma experiencia, y son analizadas tras haber sido puestas de algún modo u otro en contacto entre sí». (Olabuenaga eta Ispizua, 1996: 247)
- 3- Talde sozialek ekoizten dituzten errepresentazio sozialak aztertzeo aukera: “...si las técnicas cuantitativas investigan el sentido producido, los hechos, la técnica del grupo de discusión investiga el proceso de producción de sentido, que no es más que la reproducción de la unidad social de sentido...”. (Jesús Ibañez)

Eztabaida taldea pertsona batekin baino gehiagorekin egiten den teknika da, talde sozialekin. Diskurtsoen aniztasuna da jaso nahi duena teknika honek eta talde sozialaren partaidetza berrekoiztu nahi du ere. Talde sozialek ekoizten dituzten errepresentazio sozialak aztertu nahi dituen teknika da.

ABANTAILAK

Taldeak zirikatzaila lana egiten du eta pertsona batzuk pentsatzen dutena egituratzeko eta adierazteko arazoak dituztenean lagungarria izan daiteke. Bertan iritzi edota ikuspuntu asko inplikaturik daude eta horrela inplikaturik dauden prozesuen arlo guztiak ezagutu daitezke.

DESABANTAILAK

Gai batzuk ezin dira taldean aztertu, adibidez pertsonalak edo tabuekin loturikoak eta gainera teknika honetan moderatzaileak eragin asko dauka taldean.


ERAKETA

Gutxienez 2 talde egin daitezke 7-10 partaide ingurukoak. Oso garrantzitsua da gutxi batzuen ikuspuntuak ez inposatzea eta berritsuenak eztabaida ez monopolizatzea. Interes gutxiko gaiak ekidin behar dira eta denbora ondo banatu behar da, gainera azpialdeak egoteko arriskua gutxitu behar da.

Laburbilduz, eztabaida talde hauetan partaideak ez dira haien artea ezagutzen, talde baten partaidea izateko aldagarri batzuk homogeenak izan behar dira. Taldearen diskurtsoa aberasteko partaideen aldagarri batzuk heterogeenak izango dira. Aldagarri sozio estrukturalak kontuan hartu behar dira (maila soziala, ekonomikoa, kulturala, ikasketak maila, ogibidea, generoa, adina, bizilekua, jatorria, familia mota...) eta ez da ezaugarri horien artean inor baztertuko.

ADIBIDEA: Eztabaida taldearen eraketa:

- 1- Objektua: goi mailako ikasketak dituzten 23-35 urteko gazteak
- 2- Aldagaiak: bizilekua, maila soziala eta ekonomikoa eta adina
- 3- Grafikoan kokatu;



- 4- Arrazoiak: zer ikertu nahi dugun eta heterogeneitate eta homogeneitate aproposa izango dugun.

Talde eztabaida hauen bidez 23-35 urteko goi mailako ikasketak dituzten gazteek lehenengo lanaren inguruan dituzten iritziak, errepresentazio sozialak eta honen inguruko diskurtsoak aztertuko ditugu. Jakin nahi duguna: diskurtsoetan haien jatorri sozioekonomikoa eragin duen, haien bizilekuaren urbanizazio mailan eragin duen. Homogeneitatea lortu dugu maila sozioekonomiko desberdinak mantenduz taldeetan eta bizileku ezberdinak mantenduz taldeetan. Barne heterogeneitatea izango dugu adinaren arabera.

MOTAK

Ezagutzaren arabera: ikerketa objektuaren ezaugarriak dituztenak talde adierazgarriak dira eta ikertzen ari garen gaiari buruz ezagutza dituzten pertsonak edo erakundeak badaude adituen taldeak dira.

Homogeneitate eta heterogeneitatearen arabera.

GIDOIAREN ANTZEKOTASUNAK SE-REKIN

Aztertu nahi ditugun gaiak bilatzen ditu, malgutasunez erabiliko dugu, ikerketaren iparrorratza da eta galderak kualitatiboak dira (inbuituaren teknika, hau da, lehenean guztien erantzuna espero da, begirunez eta neutraltasunez eginak eta eztabaida bultzatu behar dute)

MODERATZAILEAREN ROLA

EZTABAIDAREN HASIERA: sarrera egin aurkezpenekin, ikerketaren helburuak azalduz, grabatzeko baimena eskatuz eta anonimotua bermatuz eta arauak azalduz, adibidez kritikarik ez. Gero konfiantza sortu behar da partaideengan, taldekide guztiak berdintzatatu behar dira, hau da, neutrala izan behar da. Gaiarekiko interesa bermatu behar da eta partaideak eztabaidara bultzatu behar dira.

EZTABAIDAREN BILAKAERAN: galdera ez epaileak burutu behar dira, orokorrak hasieran eta zehatzagoak aurrera egin ahala. Egoerari egokitu behar da eta egoera gatazkatzuei irtenbidea eman behar zaie. Norbaitek era desegokian edo denbora asko hitz egiten badu hitza kendu behar zaie eta sakontasuna eta garrantzia zeri eman erabaki behar da.

EZTABAIDA BUKAERAN: partaidetza eskertu behar da.

Kontuan hartu behar da eztabaida osoan zehar isiltasunaren kudeaketa, eztabaida gai batetik bestera mugiaraztea eta eztabaidan sorturiko emozioak kudeatzea.

EZTABAIDA TALDEA IKERKETA TEKNIKA LAN ERAKUNDE BATEN BARRUAN

Eztabaida moldatu behar da lan baldintzak aztertzeke helburuarekin eta langileen bizipenak neurriak hartzeke baliagarriak dira honen bitartez arazoak identifikatzen direlako, soluzioak proposatu, partaideak aleatorioki maila berdinetik aukeratzen dira eta lekua neutrala da.

ABANTAILAK

Langileen subjektibitatea kontuan hartzen da erabakiak hartu aurretik eta langile talde sozial bezala konpartitzen dutena aztertzeko teknika erabilgarria da.

DESABANTAILAK

Aske espresatzeko sailtasun ugari daude adibidez anonimatua nola bermatzearena. Eta gainera kritiken ondorioak ezezagunak dira